

Drogak

Hamabi talde elkartu dira drogaren arazoaren kontra

IRUÑA

Drogomenpeketasunari aurre egiten saiatzen diren Nafarroako hamabi elkarteek txosten bat bidali diete alderdi parlamentarioei, Administrazioak arazo honekiko duen jarrera salatzen. Besteak beste, droga legeztazeari buruzko eztabaida sortzeko eskatu diote Gobernuari.

Antox, Askagintza, Atarra-biako drogazaleen familien elkarte, Drogazaleei laguntzeko Tuterako Elkarte, 'El Camino', 'EL Roble', HIESaren kontrako hiritar elkarte, Oasis, Gizakia Helburuz, Lantxotegi eskola eta Emauseko Traperok hartu dute parte txostenean. Beraz, drogan inguruan lan egiten duten elkar-teak biltzen diren lehenengo aldia da hau.

Askagintzako Gerardo Castil-lok esan zuenez, Administrazioaren 'zabarkeria' ikusita erabaki dute elkarrekin lan egitea. Castilloren esanetan, «Adminis-

trazioak keinuak besterik ez ditu egiten. Abenduan adibidez, Par-lamentuak neurri batzuk onartu zituen, baina ez zituen aurrekontuetan aipatu. Nik uste hori keinu politika dela. Udalak berdin, hauteskunde aurretik neurri ugari iragartzen ditu eta gero ez dira behin ere aurrera eramaten. Prebentzioa dela garrantzitsua esaten dute droga plangintzan, eta ondoren prebentziorako laguntzak murriztu egiten dituzte. Hauexek dira drogomenpekotasuna sendatzeko Nafarroan hartzen diren neurriak».

Drogomenpeketasunaren arazoari aurre egiteko beharrezkoa da elkarrekin eta Parlamentuko Batzordeak elkarrekin lan egitea Castilloren ustetan. Horretarako atzo kaleraturiko txostenean neurri batzuk proposatzen dituzte, hala nola, gobernuak baztertzearen kontra eta gizartearen garapenerako egitasmo bat egitea. Halaber drogen legeztazeari buruzko eztabaidari hasiera ematea ere eskatzen dute.

Gaztetxeak

Ertzaintzak 8 gazte atxilotu zituen atzo goizean Laudion

L.K.G. / GASTEIZ

Laudioko Gaztetxeak zortzi gazte atxilotu zituen atzo goizean Ertzaintzak, udal eraikuntza bateko atea behartu ondoren eraso egin ziotela akusatuta. Ertzaintzak atxilotutako gazteak 20 eta 25 urte bitartekoak dira eta Amurrioko epaileen esku utzi dituzte.

Lokala Laudioako Gaztetxea izan zen iragan igandea arte, eraikuntza erabili ahal izateko udal baimena amaitu zen egunean, hain zuzen ere. Beraz, udal funtzionarioek lokaleko zerraila aldatu zuten atzo, baina gazteak goizeko hamarrak aldera sartu ziren etxean.

Atxilotuekin batera zeuden gazteak jakin erazi zuten, larunbatean Gaztetxean egin zen elkartasunezko jaialdian erabilitako materialeak jasotzeko asmotan sartu ziren zortzi gazteak.

Atxiloteten ostean, Laudioako Institutuko 300 bat lagunek Gaztetxea hartu zuten. Ekintza horren ondoren, ikasleentako zenbait ordezkari Toño Aiz EAJko alka-

tearekin bildu ziren, baina ez zuten akordiorik izan lokalaren erabilpenari dagokionez.

BOST URTEREN BURUAN

Laudioko Gaztetxea orain dela bost urte hartu zuen herriko Gazte Asanbladak, garai hartan alkatetzan zegoen HBk eman bait zion. Joan zen urteko hauteskunde ondotik agintaritzan hartu zuten jeltzaleen ekimenez lokalaren erabilpena ukatu egin zaio Gazte Asanbladari.

Horregatik, iragan larunbatean Gaztetxearen aldeko ihardunaldia antolatu zuen Gazte Asanbladak. Kultur ekitaldien bitartez, «elkarrizketaren bidea» aldarrikatu nahi izan zuten gazte laudiarrek, baina udal erabakiaren gauzatzeak ahalegin horiek geldiarazi ditu azkenean.

Mota honetako beste zenbait ekintza izan dira azken egunetan Laudion. Adibidez, asteazkenean Gaztetxea ixteko udal erabakiaren atzera jotzea eskatzen zuten agiria eman zioten herriko ikastetxeak gazteak alkateari.

Zabor biltzaileen greba

Zabor pilaketa oraindik ez dela hain «kezkagarria» dio Osakidetzak

Gipuzkoan eta Gasteizen bilerak egin ziren atzo arazoa konpontzeko

Astebete eskas bete du Gipuzkoako zenbait herritan zabor biltzaileak egiten ari diren grebak. Asteburu luze honen ondorioz, zabor pilaketa nabaria da zenbait herritan. Gasteizen ere bildu ziren greban dauden langileak, Cespa enpresa eta Udala.

DONOSTIA

Gasteizko Udala, Cespa enpresa eta enpresa batzordea bildu ziren atzo eguerdian, zabor biltzaileen grebari irtenbidea bilatzeko. Ez zen inolako akordiorik lortu baina, «arbitraia» sistema ezartzea erabaki zuten. Arratsaldez berriro elkartu ziren, hala ere.

Gipuzkoako egoera desberdina da herri eta hiriburuan. Donostian arazoa ez da hain latza, Construcciones y Contratas enpresako langileek kale garbiketa soilik egiten dutelako aste barruan. Larunbatean arduratzen dira zaborrak biltzeaz. Osakidetzako iturrien arabera, ordea, gizakien osasunerako zabor pilaketak izan dezakeen eragina ez da



Zabor pilaketa kezkagarria bihurtzen hasi da herri batzuetan. J.C.RUIZ

kezkagarria.

Zabor biltzaileak greban dauden herrietako udalak zein Eusko Jaurlaritzaren Lan zuzendaria bildu ziren atzo, gutxienezko zerbitzuen arazoa konpontzeko. Era berean, Contrucciones y Contrataseko ordezkari, langile zein Administrazioako ordezkariak bildu ziren gerora arazoari irtenbidea emateko asmoz.

Hernani, Irun eta Lasarteko alkateak salatu zuten, herriotan

ez dira gutxienezko zerbitzuak betetzen eta zerbitzu hauek betetzeko eskatu zioten Lan zuzendariari. Greban dauden langileen sindikatuen hitzetan, zerbitzu horiek betetzen ari dira.

Lan zuzendariak azaldu zuenez, Zuzendaritzaren zeregina gutxienezko zerbitzuak finkatzean amaitu zen. Bestalde, Osakidetzak herriotako kaleen egoerari buruzko txosten bat egin du.

Emakumeak

Emakumezko irakasleak nagusi dira EAEko oinarrizko hezkuntza mailetan

DONOSTIA

Emakumeek EAEko irakas-kuntza arloan duten partehartzea desberdina da hezkuntza mailaren arabera. Eskolaurtean eta OHOn kopurua handia bada ere —% 75 inguru—, goi mailako ikasketetan kopuru hau % 25era jaisten da.

EAEko emakumeen egoera aztertzeke Emakunde kaleratu duen txostenaren datuen arabera, EAEn OHoko klaseak ematen dituzten irakasleen hiru laurden inguru emakumeak dira, eta portzentaia hauek handiagoak dira beheko mailetan. Izan ere, eskolaurtean emakume irakasleen kopurua % 93,4koa da.

Emakunderen txosten honek euskal hezkuntza sisteman emakumeek duten partehartzea azpi-

marratu egiten du. Partehartze garrantzitsu hau dela eta, gizarteko roletan zatiketa sexuala eragiten duten jokabideen aurkako tresna bat izan dezakegu. Honela, lehen hezkuntza ziklotan nabarmen den emakume irakasleen nagusitasun horrek ezinbesteko garrantzia izango du, ez bairik gabe, datozen belaunaldi berrien gizarteratzean.

Emakume irakasleen nagusitasun honek BBB eta UBI mailetan irauten baldin bada ere (irakasle osoaren % 55,6), kopuru honek diferentzia aipagarri bat ezkututzen du BBBko adar desberdinen artean. Emakumeen pisua letretako ikasgaietan nagusitzen da eta zientzietakoetan alde-rantziz gertatzen da.

Baina irakaskuntzako behe eta ziklo ertainetan ikusitako ema-

kumeen aldeko kopuru horiek erabat murriztu egiten dira goi mailetan. Eta unibertsitateko fakultateetan emakumeak kopuru osoaren % 26,3 diren bitartean, goi mailako eskola teknikoetan kopuru hori % 12,4ra murrizten da.

EMAKUME GEHIAGO UNIBERTSITATEAN

Nafarroan sortu berri duten Emakumearen Zuzendariordetzak kaleraturiko txostenaren arabera emakumeek gizonezkoek baino maila handiagoa ikasketak egiten dituzte. Zazpi mila gora neska nafar ari ziren iaz Nafarroako unibertsitateetan ikasten. Gizonezkoak, berriz, ez ziren sei milara ailegatzen. Humanistika eta Osasun zientziako ikasketak dira emakumeak nahiago dituztenak.



... eta aste honetan :

GASTEIZ: El Cordon erakustaretoan, 30era arte. Ordutegia: 19-21.
DERIO: Kiroldegian, lehen solairuan, 26tik 29ra. Ordutegia: 10-22.
ARRASATE: Frantziskotarren etxean, 26tik 29ra.
ELIZONDO: Kultur Etxean, 26tik 29ra.

